

IZARRAREN HAUTSA

Inaki Irazabalbeitia ■ ZIENTZIA DIBULGATZAILEA



Polemista baten ekarpena

Sir Fred Hoyle hil zenean Encyclopedia of Astronomy and Astrophysics kontsultatzera jo nuen. Bi helburu nituen: Hoyleren biografia eta Egoera Geldikorraren teoria.

Oso adierazgarria iruditu zitzaidan bertan aurkitu nuen Hoyleren jardueraren definizioa, astrofisikari, polemista eta idazle baitzioen. Arrunt egoki bil-tzen du Hoyleren ekarpena.

Hoyle lehen mailako astrofisikaria izan da eta zientziari eginiko ekarpena *Big Bang*-ari izena ematea baino harata-

go doa, nahiz eta, egun haietako egunkari baten bati erreparatuta horretara mugatu dela irudi lezakeen. Hoyle ez zen erraz isilik egotekoa ezta aise maktzen konbentzionalismoetara ere. Horrek bere ibilbide zientifikoari eragin dio, Egoera Geldikorraren teoria edo panspermia lekuko, eta baita zientziari berari ere. Hoyleren ideiek, okerrak zein zuzenak, eztabaida zientifiko sako-nak eragin dituzte eta teoria astrofisiko modernoaren garapena azkartu dute, aldi berean.

Bestalde, Hoyle ez da bere garaiko

zientzialari arrunta izan. Garaiz kanpo jaio zela esango nuke. Zientzialarien gizarte-betebeharrei buruzko filosofian gertuago ditu XX. mende hasierako zientzialariak mende hondarrekoak baino. Gizarte-eztabaidetan parte izan da, zientziaren garapena gizarteari zabal-tzen indar handia egin du, zientzia dibulgatzaile bikaina izan baita eta litera-to moduan, nire gustukoa ez bada ere, hainbat obra argitaratu ditu. Errenazi-mentuko gizona izan da, hein batean.

Horregatik guztiagatik erakarri izan nau beti Hoylek. Sarritan zientzialariak bere lanen maskorrean ixten diren te-nore honetan, ausart mugak apurtu di-tu. Bolizko dorreak eraitsi ditu. Eredu-garria iruditzen zait Hoyleren portaera. Garbi ikusi zuen zientzia ez dela ikerke-ta, argitalpen eta kongresuen gupil zo-roa soilik, hori baino gehiago ere bade-la. Zientzia ere bada gizarteari aurrera-



EGUNKARIA
Fred Hoyle astronomoa.

pen zientifiko eta teknologikoen berri ulergarri ematea eta, zientziaren mugak apur bat tenkatzen baditugu, baita gi-zartearen aurrean iritzia agertzea ere.

Hoyle gehiago behar ditu XXI. men-deak.

LABURAEAN

OSASUNA

Txantxarraren kontrako txertoak ontzen ari dira

Ahoko infekziorik arruntena den txantxarra edo kariesa jo-muga izango duten bi txerto apailatzen ari dira Bostonen (EEBB) eta Londresen. *Streptococcus mutans* bakterioa da txantxarraren eragileetako bat, eta berau gai likatsu batez



JOSU ETXEBARRIOSTE
Dentista bat lanean.

atxikitzen zaio hortzen gainazalari; ondoren, azido laktiko ugari isuriz hortzetako esmaltea hi-gatzen du. Bostongo Forsyth Institutuan on-tzen ari diren txertoari esker bakterio hori hor-tzei ez itsastea lortu du-te; hala ezin zaio plakari atxiki eta eskuilaz aise erauz daiteke. Bien bi-tartean, Londresko Guy erietxean urtero hartu beharreko txertoa iker-tzen dihardute. Bi iker-ke-tok, baina, hiru eta zazpi urte arte beharko dituzte merkaturatzeko.

OSASUNA

Munduko Osasun Elkartearen iritziz, botiken patenteak herrialde txiroen egoeretara egokitu behar dira

Munduko Osasun Erakundeko (MOE) zuzendari nagusi Gro Har-lem Bruntlandek esan duenez, bo-tiken jabego intelektualaren esku-bideetan «salbuespenak ezarri be-har dira herrialde pobreetako osasun publikoko interesei mol-datze-ko». Bruntlandek «tragedia» iritzi dio mundu osoan eskuragarri diren zenbait botika ezin lorturik milaka pertsona hiltze-ari. Horren-beste, patenteen sistemaren ja-rraipena defendatu duen arren, MOEko zuzendariak azpimarratu du herrialde txiroetan botiken prezioak beheitzeko neurriak hartu behar direla. Hiesaren aur-kako botiketan prezioak jaitea lortu den arren oraindik eskura-e-zinak dira pertsona askorentzat.

ESPAZIOA

Errusiaren 'Progress' ontzia arazorik gabe atxiki da Nazioarteko estazioko 'Zvezda' moduluan

Lurreko orbitan bi egunez hegan egin ondoren Errusiak jaur-tikitako *Progress M-SO1* garraio ontzia eta honek daraman *Pirs* erabilpen askotariko segmentua arazorik gabe ainguratu dira Nazioarteko Espazio Estazioan (NEE); hain xuxen ere, *Zvezda* moduluan atxiki dira. Garraio ontzia joan den larun-batean jaurtiki zuten Baikonurgo (Kazakhstan) kosmodro-motik. *Pirs* segmentuak NEEko funtzio ahalmenak handitu eta hobetuko ditu. Ondorioz, errusiarren *Zvezda* moduluan hiru ontzi atxiki ahal izango dira batera.

GIZA ESKUBIDEAK

Gizakiak elikadura duina izateko eskubidea duela aldarrikatzea eskatu dute 800 erakundek

Atzo Erroman hainbat herrialde-tako Gobernu Kanpoko 800 erakundek «gizakiak elikadura duina izateko eskubidea» al-darrikatuko duen Nazioarteko Deklarazio bat eskatu zuten. Ekimena Jacques Maritain Nazioarteko Institutuak antolatu mintegian aurkeztu zuten. Bertako idazkari Roberto Papini-ren arau, GKEk espero dute Italian azaro hasieran munduko goseaz egingo den Elikadura eta Nekazaritza Erakundeko bilkuran ahalik eta herrialde gehien atxikipenak lortzea.

KOMUNIKAZIO MASTERRA EUSKARAZ 2001-2003



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

HIZKUNTZA, INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA (HIK)

EHUk eratua (ILCLI institutuak) EUSKALDUNON EGUNKARIArekin lankidetzan

Egunkaria

TITULUAK

Unibertsitate-espezialista titulua

Ikastaroaren lehenengo urte osoa (25 kreditu)

Unibertsitate-master titulua

Ikastaroaren bi urteak (50 kreditu)

EGITARAUA

2001-2002 IKASTURTEA

1. Komunikazioa, informazioa eta esanahia: komunikazio ageria eta ezkutua. Kepa Korta.
2. Euskal Herriko Ekonomiaren egoera gaur egun. Mikel Gómez Uranga eta Yolanda Jubeto.
3. Hitzaren estrategiak komunikabide zahar eta berrietan. Joserra Garzia.
4. Komunikazioaren Psikologia. Mikel Haranburu.
5. Komunikabideak eta iritzi politikoa. Ander Iturriotz.
6. Informazio eta komunikazioaren produkzio multimediatikoa. Josu Landa.
7. Gure kazetagitzaileen hizkerak. Koldo Izagirre.
8. Informazioaren aurkezpen era berriak. Andres Gostín.

9. Komunikabideen eragina gizartearen. Martxelo Otamendi.
10. Euskalgintza eta euskararen bilakaera aro garaikidean. Joxe Jabier Iñigo.
11. Komunikazioaren etika. Jesus M. Mujika.

2002-2003 IKASTURTEA

1. Komunikazioa Internet sarean. Andoni Sagarna.
2. Erretorika komunikabideetan. Jesus M. Larrazabal.
3. Euskararen erabilera komunikabideetan. Irene Arraras eta Patxi Petrirena.
4. Informazioaren Gizartea. Mikel Olazarán.
5. Gizarte ikerketarako teknikak. Matxalen Garmendia.
6. Komunikazioaren Estetika. Andoni Egaña eta Anjel Lertxundi.
7. Ikus-entzunezkoaren arauketa eta komunikazio-enpresen egitura: azken urteotako joerak. Patxi Azpillaga.
8. Komunikazio esparrua. Josu Amezaga.
9. Telebistaren bilakaera Euskal Herrian. Edorta Arana.
10. Euskal Sistema Politikoa. Mario Zubiaga.
11. Gizarte Psikologia eta iritzi publikoa. Jose Valencia.

LAN PRAKTIKAK

EUSKALDUNON EGUNKARIAn praktikak egingo dira urtero.

ORDUTEGIA

2001eko azaroaren 30ean hasi eta 2002ko ekainaren 30era ostiraletan (16:00etatik 20:30era) eta larunbatetan (09:00etatik 13:30era).

TOKIA

ILCLI institutua.

IZEN-EMATEKO EPEA

2001eko ekainaren 11tik irailaren 28ra.

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

ILCLI, EHU, Villa Asunción,
Jose Elozei Alkatearen hiribidea, 275,
20015 Donostia. Tel.: 943 29 03 00
Internet: www.egunkaria.com/masterra